

# Urkiola

## Parke Naturala · Parque Natural

**PR-BI 81**

## Galdarako bira
## *Rodeando Galdara*

www.bizkaia.eus
www.bizkaia21.eus




**TOKI ALAI**
Interpretazio Zentroa
*Centro de Interpretación*
☎ 94 681 41 55

informazioa eta trackak deskargatu:
*descarga de información y tracks:*

(EU) (ES)

Bizkaia foru aldundia / diputación foral

URKIOLA PARKE NATURALA / PARQUE NATURAL

amorebieta etxano UDALA AYUNTAMIENTO

DIMA

112 SOS DEIAK

## TOPONIMIA: Informazio iturria

Toponimia informazio iturri oso interesgarria da. Toponimo batzuek kondaira zaharrak edo gertaera historikoak ezkutatzen dituzte, beste batzuek ingurune bat (oraingo edo iraganeko paisaia) deskribatzen dute eta bakan batzuen jatorria onomatopeia batean (Pol-pol iturria Asuntzan) egon daiteke.

• URKIOLA: Urkia + ola. Egun daukan landare-paisaiak zerikusi gutxi dauka espezie horrekin. Baina iraganean agian askoz urki gehiago egon ote zen?

• GALDARA: Galdara edo kubeta. Aramotz mendigune karstikoko sakonune bitxiak jasotzen duen izen deskribatzailea.

## *LA TOPONIMIA: Fuente de información*

*La toponimia es una fuente de información muy interesante. Algunos topónimos esconden viejas leyendas o pasajes históricos, otros aparecen describiendo un entorno (paisaje del presente o del pasado) y unos pocos pueden tener su origen en una onomatopeya (fuente de Pol-pol en Asuntza).*

*• URKIOLA: Urkia=abedul + ola= sel. El paisaje vegetal que presenta en la actualidad poco tiene que ver con esta especie. ¿Pero acaso su presencia fue notablemente mayor en el pasado?*

*• GALDARA: Caldera o cubeta. Nombre descriptivo que recibe la curiosa depresión en el macizo kárstico de Aramotz.*



Galdara

## FITXA TEKNIKOA · *FICHA TÉCNICA*

| | | |
|---|---|---|
| HASIERA | *Barrio* Artaun auzoa | *INICIO* |
| AMAIERA | *Barrio* Artaun auzoa | *FIN* |
| LUZERA | 9,6 km | *LONGITUD* |
| GEHI. MALDA | 420 m | *DESNIVEL ACUMULADO* |
| DENBORA (g.g.b) | 2h 45′ | *TIEMPO ESTIMADO* |
| IBILBIDE MOTA | Zirkularra / *Circular* | *TIPO DE RECORRIDO* |




| % | | |
|---|---|---|
| 9% | Errepidea edo asfaltozko bidea | Carretera o camino asfaltado |
| 69% | Lur- edo hartxintxar-pista | Pista de tierra o grava |
| 7% | Galtzada edo bidezidorra | Calzada o senda |
| 15% | Karsta | Karst |

Ibilbide hau Aramotzeko karsteko mendebaldetik doa, Legarmendi mendigunetik. Hamaika kobak, leizek eta arrakalek lurrazala eta espeleologoen paradisua lotzen dituzte; ingurune horretan Galdara nabarmentzen da, gure ibilbidean inguratuko dugun sakonune karstiko handia.

*Este itinerario, recorre la zona oeste del karst de Aramotz, en la sierra de Legarmendi. Un sinfín de cuevas, simas y grietas conectan la superficie con el paraíso de los espeleólogos, en un entorno donde destaca la caldera de Galdara, una depresión kárstica de dimensiones considerables que bordearemos en nuestro recorrido.*

**MIDE**

| | |
|---|---|
| 1 | Inguruak badu bere arriskua / *El medio no está exento de riesgo* |
| 2 | Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak / *Sendas o señalización que indica la continuidad* |
| 3 | Koskadun bidezidor edo zoru irregularreko ibilaldia / *Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares* |
| 2 | Ordu 1etik 3ra bitarteko ibilaldia gelditu gabe / *De 1 a 3 horas de marcha efectiva* |

# PR-BI 81

## Galdarako bira

**0. km** **Artaun.** Bidea iturri-uraskatik eta eskola zaharretatik abiatzen da ekialderantz, eta lehen zatian PR-BI 82arekin bat dator. Gaztainondo zaharrez inguratutako hartxintxarrezko bidea jarraituko dugu. PR-BI 82ak aurrez aurre jarraitzen du, baina gure bideak, ordea, ezkerretara egiten du. Gorantz egiten duen bide nagusia jarraituko dugu beti.

**2. km** **Odiol depositua.** Eskuinean pista bat utzi eta bide batetik aurrera jarraituko dugu. Urtemondo eta Pagobakar artean, gure ezkerretara Aramotzera daraman desbideratze bat utziko dugu, eta geroago eskuinetik jaisten den bidea ere bai. Laster argigune batera iritsiko gara eta bertan, elorri baten oinetan, apur bat igotzeko hartuko dugun harrizko bidea hasten da. Zelai batera iritsi eta Mugarrikolandarako saihesbidea (PR-BI 83) aurkituko dugu. Eskuinera utziko dugu eta Galdarako kubeta inguratzera garamatzan artzain bidetik jarraituko dugu. Atsedenleku batera iritsiko gara; bertan San Inazioren baseliza aurkituko dugu eta haren atzean Belatxikieta gailur belartsua.

**4,3. km** **Hartxintxarrezko mendi-bide**ra jaitsiko gara, eta laster, bidebanatzean, ezkerretarantz abiatuko gara.

**5. km** Aurrerago, itxitura bat gainditu beharko dugu eta berehala, beste atetzar bat zeharkatu eta ezkerretara egin, eskuinera pista belartsua utziz. Zelaian ibili eta **borda** baten ondotik igaro arte pixkanaka jaisten gara.

**8,2. km** **Borda.** Aurrera jarraitu eta bidebanatze argi batera iritsiko gara; bertan eskuinera egingo dugu. Pista jarraituz, kaltzitazko harrobi zahar batera ailegatuko gara.

**9,6. km** Pistatik jaisten jarraituko dugu eta apurtxo bat aurrerago ,burdinezko atetzar bat igaro ostean, **Artaun** auzora helduko gara.

www.orbela.com







Belatxikieta


Karst

# PR-BI 81

## Rodeando Galdara

**km 0** **Artaun**. El sendero parte de la fuente-abrevadero y las viejas escuelas hacia el E, coincidiendo en un primer tramo con el PR-BI 82. Rodeado por unos viejos castaños parte un camino de gravilla, que comienza a ascender. Llegamos a un cruce evidente donde el PR-BI 82 continúa de frente, mientras que nuestro sendero gira a la izquierda. Seguimos en todo momento por la pista principal.

**km 2** **Depósito de Odiol.** Dejamos una pista a la derecha y continuamos de frente por una senda. Entre Urtemondo y Pagobakar obviamos un desvío que lleva a Aramotz por nuestra izquierda y otro camino que baja por la derecha. Pronto llegamos a un claro en el que, al pie de un espino, nace un camino de piedra que tomamos para ascender ligeramente. Llegamos a una campa en la que encontramos el desvío a Mugarrikolanda por el PR-BI 83. Lo dejamos a la derecha y continuamos por el sendero de pastores que nos lleva a rodear la **cubeta de Galdara**. Llegamos a un área recreativa, donde encontramos la ermita de San Ignacio y tras ésta, la cumbre herbosa de **Belatxikieta**.

**km 4,3** Bajamos por un pequeño sendero herboso hasta llegar a una **pista de grava** y pronto llegamos a una bifurcación que tomamos a la izquierda.

**km 5** Franqueamos un cierre, pasamos otro portón y giramos a la izquierda, dejando una pista herbosa a la derecha. Llaneamos y descendemos suavemente hasta pasar junto a una **borda** para el ganado.

**km 8,2** **Borda**. Continuamos hasta llegar a una bifurcación evidente en la que giramos a la derecha. Siguiendo por la pista encontramos a nuestra derecha una antigua cantera de calcita.

**km 9,6** Continuamos descendiendo por la pista y después de franquear un portón de hierro llegaremos al barrio de **Artaun**.